

FUNTZESKO BALIABIDEAK



Funtzesko baliabideek edo elementuek gure enpresari balio-proposamenerako eskaintza garatzea ahalbidetzen lagunduko digute. Batez ere, bezeroarengana era zuzenean iristea, haiekin harremanak mantentzea eta ondorioz, diru sarrerak lortzea.

LAHEI diskotekan, baliabide fisiko, intelektual, giza baliabideak eta finantza baliabideak jorratzen ditugu.

Lehenik, **baliabide fisikoetaz** ari garenean, ezinbestekoa da, instalazioa, makinaria eta sistema informatikoez hitz egitea. Hain zuzen, garrantzitsuena, gure negozio ideiarekin instalazioa erosi beharra dago (lokala). Azken finean, diru sarrerak ekarriko dizkigun funtzesko elementua da hau, izan ere, gure negozio ideia horren baitan kokatuko delako.


Bigarrenik, makinaria arloan, zehazki, garagardo makina beharko dugu. Azkenik, sistema informatikoak. Honen baitan, hainbat elementu barneratuko ditugu, hala nola, argiak, bozgorailuak, musika tresneria, hatzamar eskanerra, ...

Azken finean, elementu hauek aurrera eraman ahal izateko, hainbat aliantza eta harreman sortuko ditugu (Funtzesko elkarten atalean komentatu dugun bezala)..

Bigarrenik, **Baliabide intelektualak** eta **Giza baliabideak** lotura zuzena edukiko dute. Atal honen baitan, LAHEI diskotekaren barnean dauden langileak jorratuko ditugu, hau da, horietako langile bakoitzak izango dituen helburu eta asmoak. Esate baterako, Diskotekako atezainak (5 izango dira), jendea sartzen uztea eta borrokak ekiditzea dute helburu nagusi bezala. Horretarako, jende kualifikatua behar dugu, kasu honetan, gure atezainak, lan hori egiten espezializatuta daude.

Beste alde batetik, zerbitzariak ditugu. Hauen helburua, bezeroei zerbitzuak eskaintzea eta haiekin tratu ona edukitzea da betebehar nagusia. Bestalde, euskara dakiten langileak nahi ditugu, euskaraz komunikatzeko gaitasuna dutenak.

Azkenik, guk ere roll-ak hartuko ditugu. Lander, tabernari lanetan arituko da Enekorin batera. Aimarrek, atezain lanak egingo ditu, eta azkenik, Iratik, publizitatean eta sarrera salmentetan arituko da. Gutako bakoitzak, kurtso bat egin beharko du, gerora, bere lanean ondo aritu ahal izateko.



Hirugarrenik, **Finantza baliabideak** ditugu. LAHIEI diskotekaz ari garenean, funtzesko da hasieran bazkideek jarritako Kapital Soziala aipatzea. Azken finean, errentagarritasuna eskuratzeko beharrezkoa. Honen baitan, hainbat adar jorratuko ditugu. Horiek, gure boltsiotik, kapitall soziala eratzeko unean 1.500€ jarriko ditu bakoitzak, guztira 7.500€ izango ditugu, diru hau bertan mantentzeko erabiliko dugu, dugun lehenengo dirua eta bankuari eskatuko diogun diru kantitatea. Honekin batera, udaletxeekin harremana mantendu beharko dugu, azken finean, udaletxeak baimena eman beharko digu momentu askotan eta bertatik ere diru sarrera ezberdinak lortu nahi ditugu eskaintzen dizkiguten diru laguntza ezberdinen bitartez. Azkenik, beste marka batzuekin ere lotura daukagu, hala nola, edari marka (BOGA), merchandisina...



- LAHIEI DISKOTEKAREN KOKAPENA (kuadro beltza)